

hazi

LEA-ARTIBAICO EKONOMIA ALDIZKARIA

2011ko ABENDUA

25. ZK. • 7.urtea

Lea-artibai eskualdearen
garapenarekin konprometiturik



6-7

SABIN AZUA MENDIA

[B + I STRATEGY]

**Berrikuntzarako
gakoak azaldu
dizkie enpresei**

Neurri handiko
arropak, esku-eskura
Markina-Xemeinen

Plastik-lan: Plastikozko
galdaragintza,
artisautzatik gertu

Ekintzaitzak
atzera egin du
datuen arabera



HAZI aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Azaro Fundazioa

LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**

EGOITZA: **Xemein Etorbidea 12-A
48270 MARKINA-XEMEIN**

TELEFONOA: **94 616 91 72**

E-POSTA: **azaro@leartik.com
leartibai@leartibai.com**

TESTUAK ETA ARGAZKIAK:
**Hitza, Leartibai Garapen
Agentzia eta Azaro Fundazioa**
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: **11 BARRI**

WEBGUNEAK:
**www.azarofundazioa.com
www.leartibai.com**

Editoriala 03

«Ekintzaileak, ekimen berrien bultzatzaile»

Enpresak sortzen 04 - 05

ENPRESAK SORTZEN

SAIZAR: Serietik kanpora.

NEREA: Ona, ontzi handitan.

EKINTZAILEENTZAKO GUNEA

Enpresa ideia edo proiektuen lehiaketa

Iritzia: ESTI PLAZA ELORDI

Ikuspegia 06 - 07

Enpresek PENTSAMENDU ALTERNATIBOAK bultzatu behar dituzte, IRAULTZAILE izango badiura.

Bertoko enpresak ezagutzen 08 - 09

ENPRESAK EZAGUTZEN

PLASTIK-LAN: Plastikozko lan bereziak, eskutik.

ROLDAN ARDOAK: EErreserba handiko enpresa.

ENPRESENTZAKO GUNEA

Kooperatiben Mahaien elkarte.

Cikautxo: Berriatutik mundura.

Iritzia: AINHOA ARRIZUBIETA PLAZA

Behatokia 10 - 11

Jarduera ekintzailearen diagnostikoa.

Datu sozio-ekonomikoak

Leihatila 12



www.azarofundazioa.com



www.leartibai.com

06 - 07 Ikuspegia

SABIN AZUA MENDIA

[B+I STRATEGY ENPRESAREN BAZKIDE-ZUZENDARIA]



Sabin Azua B + I Strategy enpresaren bazkide-zuzendariak enpresen identitatea galtzeko arriskuaz ohartu zuen Enpresa Traktoreen Lehen Topaketan. Enpresek identitateari eutsi behar diotela esan zuen, eta enpresan sartzen den kide bakoitzak identitate hori barneratu behar duela. Azuaren ustez, enpresak etorkizunari begira egon behar dira modu jarraian eta dinamikoan, sistema uneoro etorkizunera moldatu ahal izateko. Enpresetan pentsamendu alternatiboak bultzatzeko beharra aipatu zuen, enpresa barruko eta kanpoko ahots berriak entzunda, pentsakera iraultzaileak sortzen direla eta. Horrela sortzen dira liderrak, eta liderrak eurak izango dira lider berriak bultzatu eta erreleboa bermatuko dutenak.

EDITORIALA

Ekintzaileak, ekimen berrien bultzatzaile

Krisialdian ekintzailera suspertu egiten da. Lana bilatzea edo mantentzea zaila ikusten denean, gordeta dauden ekimenei aukera emateko momentu onak izaten dira, eta horren atzean ekintzaile profileko pertsonak egoten dira.

Izan ere, ekintzaile profila daukaten pertsona asko daukagu gure inguruan, ekimen berriak martxan jartzen saiatzea ezinbestekoa daukatenak, berdin euren kontura, euren auzoan, euren herrian, euren ikastetxean, baita euren lantokietan ere. Profil honetako pertsonak beti dabiltza gauza berriak frogatzen, sarri askotan interes orokorraren alde.

Beraz, ekintzailera kontzeptu orokorra gehiago zehaztu daitekeela esan genezake. Alde batetik, ekintzailera bera, norberaren kontura enpresak sortzeari deritzona. Eta beste alde batetik, barne-ekintzailera, erakunde baten barruan ekimen berrien sorrera bultzatzen duena.

Nola nahi ere, mota guztietako ekintzaileak ezaugarri berezi batzuk izateagatik nabarmentzen dira, besteak beste, dinamikoak, ausartak, autosufizienteak eta berritzaileak dira. Aldi berean, sakrifizioa eta porrota onartzeko gaitasuna dau-

kate, baita norbere gaineko konfiantza ere. Garai batean, enpresa eraketa bertikala eta aldaezina zenean, profil honetako pertsonak ez zuten garapenerako aukerarik izaten enpresen barruan, ezta errekonozimendurik ere. Gaur egun, aldiz, gero eta balio handiagoa ematen zaio erakundeetan pertsona ekintzaileak egoteari, haiek baitira ekimen berriak bultzatzeko gaitasuna daukatenak.

Leartibai Garapen Agentzian eta Azaro Fundazioan ahalegin handiak egiten dira mota honetako pertsonak bilatzeko, bai euren kontura enpresa berriak sortuko dituztenak, bai enpresetan aktibitate edo enpresa berriak sortzen lagunduko lukeenak, jardura berriak sortzea erakunde bion *leit-motiv*-a baita. Esfortzu handiak bideratzen ditugu horretara, argi baitago ekintzailera, bere esangura guztietan, ezinbestekoa dela, ez bakarrik lanpostu berriak sortzeko edo daudenak mantentzeko, baita inguruan aberastasuna ekonomiko eta soziala sortzeko ere.

Hori da, hain zuzen ere, martxan jarri berri dugun **VI. Enpresa Proiektu Lehiaketaren** helburua, pertsona partikularrei zein enpresei laguntza eman eta aintzatestea.

BABESLEAK



EL FONDO SOCIAL EUROPEO
INVIERTE EN TU FUTURO



Produktu hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantzaziorako funtsen %50 EGIFek eman du (POPV 2007-2013)

SAIZAR

[INGENIARITZA - MARKINA-XEMEIN]

Serietik kanpora

Mireia Saizar teknikari mekanikoak automobilen homologazioan dihardu.

Mireia Saizarrek beti eduki du automobilen hartu-eman zuzena, beti gustatu izan zaio automobilen mundua. 2008an hasi zen teknikari mekaniko lanean, homologazioetan, eta aurretik kopiloto ere aritutakoa da. Barrutik ezagutzen duen jarduera da, beraz.

Euskadiko Automobilismo Federazioko kide eta teknikarien buru ere bada. «Federazioaren bitartez hasi nintzen konpetizioan aritzen diren autoei ikuskapen teknikoa egiten». Automobilak zelan dauden ikusi eta lasterketarako elementuak

ipintzen dizkio, beharrezkoak diren segurtasun elementuak eta auto normaletan ohikoak ez direnak, lasterketarako beharrezkoak. «Horrekin hasi nintzen, eta gero osterantzeko automobileren homologazioak egitera pasatu naiz», adierazi du. Bera da, eskualdeko teknikarien arteko arlo honetan diharduen bakarra.

Asko dira lasterketarako erabiltzen dituzten automobileren modura, kalekoei ere prestazio bereziak ipini nahi izaten dizkietenak. Eta horrek homologazioa eskatzen du, Saizarren moduko teknikari baten esku hartzea. «Gurpilak aldatzera bazoaz hagen handiagoak



Mireia Saizar ingeniari tekniko mekanikoa.

nahi dituzulako, homologatu egin behar da. Gauza bera motor indartsua sartu nahi baduzu. Azken batean, serietatik ez datorren edozer homologatu egin behar izaten da». Saizarrek dioenez, ia dena ahal da homologatu, beti ere Industria Sailak ipintzen dituen mugen barruan.

NEREA

[NEURRI HANDIEN ARROPA DENDA - MARKINA-XEMEIN]

Ona, ontzi handitan

Nerea dendan neurri guztiko arropak aurki daitezke, 40tik 80ra artekoak

Bilbora eta Donostiara arropatara egin behar izaten zituen osterez nekakuta, Nerea Lersundi denda ipintzera animatu zen, bere herrian, Markina-Xemeinen.

Nerea denda ez da ohiko denda bat, ez da beste denda bat: edozein neurrirentzako modukoxe arropak aurki daitezkeen arren, neurri bereziak dira Nerea Lersundiren dendaren ezaugarri nabarmena:

80 neurrirainoko arropak aurki daitezke; eta arrokekin batera, osagarriak: poltsa, lepoko, bularretako eta beste. Estilo eta adin guztientzako modukoxe jantziak daude Nerearenean, eta prezioz ere egokiak, Lersundik dioenez.

Leartibai Garapen Agentziaren laguntzarekin egindako bideragarritasun planean dago jasota gizartean dagoen neurri handiko arropen premia. Txostenaren arabera, Lea-Artibain 20tik 24 urtera arteko 583 gaztek daukate gainpisua; 25etik 29ra artekoen multzoan, 760 lagunek. Eta adinean gora joanda, gora eta gora doa neurri handiko arropa behar dutenen kopurua.

Denentzat dago lekua Nerea Lersundiren dendan. Eta nahi duenak katalogoz eskatu ahal du. Eta bestea ere bai: bera moduko egoeraren jakitun, badaki psikologiaz jokatu behar dela. Psikologiaz, «eta inor engainatu barik».



Nerea Lersundi

Enpresa ideia eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektu ideien lehiaketa

Berrito ere Azaro Fundazioak eta Leartibai Garapen Agentziak enpresa proiektuen lehiaketa antolatu dute, ekintzaileen esfortzua saritzeko asmoz.

Bi dira modalitateak:

1.- ENPRESA IDEIAK

Lea-Artibai eskualdean 2010-01-01tik martxan jarri diren enpresa berriak, edo gaur egun jartzeke daudenak. Bi negozio modalitate sarituko dira:

- Zerbitzuetako edo industriako enpresa berritzaileak edota oinarri teknologikoa dutenak.
 - Merkataritza, turismo eta zerbitzu enpresak.
- Saria enpresa ideia onenari emango zaio, modalitate bientzako sari berdina izango direlarik:
- **3.000 euroko laguntza ekonomikoa enpresa proiektua martxan jarri eta garatzeko.**
 - **Lea-Artibai Berrikuntza Guneko haztegiaren kokatzeko erraztasunak.**
 - **Enpresa martxan jarri arte eta ondorengo urteetan aholkularitza eta laguntza erakunde antolatzaileen eskutik.**

informazio zabalagoa eta izen emate orria esteka hauetan:

www.azarofundazioa.com

www.learitibai.com

Tel: 94 616 91 72 / 94 616 90 88

2.- ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAK

Lea-Artibain kokaturiko **enpresak** izango dira onuradunak. Kasu honetan ere, bi sari egongo dira enpresa tipologiaren arabera, **2012** urtean zehar proiektua martxan jartzeko:

- Merkataritza, turismo eta zerbitzuetako enpresetan lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.

Saria: **3.000 euro arteko saria**, horretarako, berrikuntza, elkarlana, kalitatea edo jasangarritasun eremuetako proiektua izan beharko delarik.

- Enpresa industrial edo hauei zerbitzuak ematen zaizkien enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.

Saria: **5.000 euro arteko saria**, horretarako, lehiakortasun proiektua produktua, prozesua edota merkaturia eremuan zentratu beharko delarik.

Lehiakortasuna hobetzeko proiektu onenak sarituko da modalitate bakoitzean.

Sari ekonomikoaz gain, kasu hauetan, parte hartzaile guztientzat erakunde ezberdinek ematen dituzten diru laguntzetara aurkezteko aukeren azterketa egingo da.

Proiektu guztiak aurkezteko azken eguna **2012-03-30** izango da, eta sari banaketa 2012ko maiatzean zehar egingo da



IRITZIA

*Esti
Plaza
Elordi*

[AZARO FUNDAZIOKO ENPRESA SORRERA GUNeko ARDURADUNA]

Enpresa berrien bidelagun

Jarduera ekonomiko berriak martxan jartzen eta enpresen jarduerak lehiakorragoak egiteko lanean dabilzan hainbat lagunen esfortzua omendu nahi dut orainoan. Alor anitzekoak dira gartzten dituzten negozio ideiak: komertzioak, tabernak, zerbitzu enpresak, baita enpresa berritzaileak edota oinarri teknologikodunak ere. Edozein enpresa martxan jartzea helburu duenak, Himalayako tontorretara iritsi nahi duenaren antzera, sherpak ondoan baditu, seguruago eta errazago egiten du gorako bidea. Hau da, hain zuzen ere, Lea-Artibai Berrikuntza Guneko lan taldearen zeregina, negozio berrientzako sherpa izatea. Hartara, hainbat arlotan laguntzen dugu: negozio ideien merkatu azterketak egiten, bezero bilaketan babesa ematen, prototipo edo frogak teknikoak egiten, patenteen bilaketa eta gestioetan, finantziario iturrien bilaketa eta tramitazioan, besteak beste.

Bidelagun izate honetan, mendi tontorrera iritsi nahi duen orenen esfortzua saritu nahi dugu. Ibilbidean zehar indarberritzen laguntzen duen energia eta motibazio dosi gisa, lehiaketa jaurti dugu enpresa proiektu onenari eta enpresetan ezartzeko berrikuntza onenari sari ekonomiko eta morala emateko. Lasai etorri guregana daukazuen ideiak lehiaketa honetara nola bideratu jakiteko, eta elkarrekin definituko ditugu ideiak aurrera eramateko eta lehiaketan parte hartzeko modu eraginkorrenak. Parte hartzera gonbidatzen zaituztet, eta zorte on animatzen zaretenoi!

enpresa sorreran eskaintzen diren zerbitzuak ▶

- Bideragarritasun planaren lanketa
- Merkatu test-ean laguntza.
- Bezero, hornitzaile eta kolaboratzaileen bilaketan laguntza.
- Prototipo eta frogak teknikoak garapena.
- Aholkularitza patenteen bilaketa eta gestioan.
- Finantziario iturrien bilaketa eta tramitazioa.
- Enpresa berrien sorrerako tramiteak.
- Aholkularitza enpresaren finkatze fasean.



«Enpresek PENTSAMENDU ALTERNATIBOAK bultzatu behar dituzte, IRAULTZAILE izango badira»

SABIN AZUA MENDIA

[B+I STRATEGY ENPRESAREN BAZKIDE-ZUZENDARIA]

Estrategi arloan aditua da Sabin Azua. Sektore pribatuan zein publikoan jorratu du ibilbide profesionala.

Gestio arloko prozesu berritzailetan aritu izan da lanean. Batez ere, strategiaren inguruko metodologია eta hainbat ikuspuntu merkaturatu ditu. Horrez gain, hainbat liburu argitaratu izan ditu.

2005. urtean, enpresa strategiaren inguruko mundu mailako adituekin elkarlanean, **B+I Strategy** enpresa sortu zuen. Gaur egun, bazkide zuzendaria da.

Joan zen irailean, Lea-Artibaiko Enpresa Traktoreen Lehen Topaketa egin zen Lea-Artibai Berrikuntza Gunean, Azaro Fundazioak antolatuta. Lehenengo bilera hartara, B+I Strategy enpresako Sabin Azua eta Manu Vizán etorri ziren.

Eskualdeko hainbat enpresaburuk topaketan parte hartzeko aukera eduki zuten. Enpresen egungo egoeraren eta etorkizuneko gakoien inguruan mintzatu ziren B+I Strategy ordezkariekin batera.

Negozioak eta enpresak lehiakorrek egiteko beharrianaz mintzatu zen Sabin Azua, batik bat, eta horretarako kontuan eduki behar diren hainbat aldagai argitu zituen: enpresen identitatea, etorkizunari begiratzea, iraultza estrategikoa, pertsonen komunita-

tea, berrikuntza aukeren bilaketa, aliantza estrategikoak, lan harremanen sareak, berrikuntza irekia, negozioa berrasmatzeko erak, negozio eredu berritzaileak eta liderraren papera, besteak beste. Denak garrantzitsuak izanik, bere ustean giltzarri diren hurrengo gakoien inguruan daukan ikuspuntua azaldu zuen Sabin Azuak.

Enpresaren identitatea

Enpresa asko identitatea galtzen ari direla esan daiteke, eta garrantzitsua da hori saihestea. Identitatea enpresek jokatzen duten modua da. Enpresa batetik bestera ezberdina da, historian eraldatuz joaten da, eta enpresaren norabidea ezarritzen. Enpresak ideologiaz jantzi behar dira. Etorkizuneko proiektu jasagarriak eta errentagarriak definitu behar dira, eta erakundea osatzen du-

ten pertsonentzat eta in-guruarentzat produktu edo zerbitzu etikoak eskaini. Enpresen identitatea etorkizunera begirakoa izan behar da, eta etorkizun ona lantzea eta prestatzea du xede.

Pertsona batek, enpresa baten lanean has-terakoan, batez ere zu-zendari lanpostuetan, enpresaren identitatea eta jokatzeko era ezagutu behar ditu, eta identitate horretan oinarrituz, erakundea osotzen duten pertsonekin batera, etorkizunera begirako proiektu konpartitua diseinatu behar du.

Hona Sabin Azuak hausnarketarako planteatutako galderak: Ezagutzen dut nire erakundearen identitatea? Eta horren arabera jokatzeko al dut?

Etorkizunari begira pentsatu eta bizi

Edozein motako erakundea modu jarraian eta dinamikoan etorkizunari buruz pentsatzen egon behar litzateke uneoro, barneratuta izan beharko luke jarrera hori, sistema uneoro egoki moldatu ahal izateko etorkizunaren aurreikuspenen arabera. Horretarako, beharrezkoa da erakundeak osotzen dituzten pertsonengan pentsamendu estrategikoa zabaltzea, ikuspuntu sozial, politiko eta ekonomikoa lantzea, baita zaintza teknologiko etengabea merkatu ikuspuntutik egitea ere.

Hau da, enpresetan etorkizunerako proiektzioak egiteko sistemak ezartzea beharrezkoa da. Hurrengo galderek lagundu dezakete hausnarketa honetan: Nor izango da nire lehiakidea bost urte barru? Eta bezeroa? Nondik etorriko dira bost urte barru nire negozioaren margenak?

Iraultza estrategikoa

Enpresa bakoitzak bere sektorean iraultzaile izateko aukerak baloratzeari dagokio. Zentzuzko aukeretatik harantzago joateko

“ *Mugak jarri ohi zaizkie hain baliogarriak izan daitezkeen kanpoko ahots berri eta desberdinei* ”



beldurra kentzeaz ari gara, eta barruko eta kanpoko ahots berriak

entzunez, sektorearen barruan iraultza estrategikoari ekiteaz.

Sarritan ikusten den bezala, enpresa barnean beti pertsona beren ahotsa entzun ohi da, hau da, enpresen pentsaera sarritan mugatua eta aldagaitza izaten da. Hortaz, enpresen pentsamendu alternatiboak bultzatu behar dituzte, barruko eta kanpoko ahots berriak entzuteko tresnak eta bideak martxan jarri, pentsakera iraultzailea izateko.

Horrekin lotuta, aipagarria da nazioartean ezarpenak dituzten enpresa askotako zuzendaritzak enpresa matrizeko pertsonekin baino ez direla osotuta egoten, eta pertsona horiek enpresa kultura beretik eratorriak ohi dira. Horrela, mugak jartzen zaizkie kasu honetan hain baliogarriak izan daitezkeen kanpoko ahots berri eta desberdinei, eta mota

honetako enpresentzat ezinbestekoa da dibertsitate kulturala bermatzea euren kudeaketa organoetan, batez ere nazioartekotze prozesuak errazteko eta kudeaketa arazoak saihesteko.

Liderraren papera

Gaur egungo enpresek ezinbestekoa dute lider egokiak edukitzea aipatutako gako guztiak aurrera eramateko; sortzaileak, etorkizunera begira daudenak, koherenteak eta erakundearen ideologia egoki proiektatzeko moduan ezagutzen dutenak. Liderrek euren enpresak demokratikoak izatea bermatu behar dute, eta langileak trebatu eta garatu daitezen bideak bilatu eta ahalbidetu behar dituzte. Aipatzekoa da lider nagusien lan garrantzitsu bat euren inguruan eta maila guztietan liderrak sortzea dela, eta etorkizuneko errelebo egokiena bermatuta edukitzea.

Lea-Artibaiko Enpresa Traktoreen LEHEN TOPAKETAREN ondorioak

- Enpresek, gizataldeak izanik, identitate propioa daukate.
- Enpresek langileek eta inguruak garatu eta aurrera egin dezaten lan egin behar dute.
- Enpresaren etika berreskuratzeko beharra dago, eta jarraitu beharreko baloreen erudia zuzendaritzak eurak izan behar dira.
- Etorkizuna «behatu» behar da, etorkizuna sistematikoki aurreikusteko beharra dago.
- Aniztasunean oinarrituz, talentua erakarri behar da enpresetara.
- Berrikuntza modu irekian egin behar da, eta barruko pertsona, bezero, aditu, hornitzaile eta abarrekin harremanetan jartzeko gaitasunak landu.
- Enpresako maila guztietan liderrak sortu behar dira.
- Enpresak iraultzaileak izan behar dira bakoitza bere sektorean.

PLASTIK-LAN

[PLASTIKOZKO GALDARAGINTZA - GIZABURUAGA]

Iraultza Arkotxa



Plastikozko galdaragintza eta lan bereziak, eskutik

Oro har, industria kimikoa eta uraren egokitzapen sektoreak dira galdaragintza mota honen bezero garrantzitsuenak, sektore haietan martxan jartzen diren prozesu askotako ekipoak edo instalazioak termoplastikotatik egindakoak izaten direlako. Plastikoen gai kimikoekiko, urarekiko, gatzarekiko eta abarrekiko erresistentzia kimikoa daukate. Horra hor arrazoiak. Beste sektore askotan ere eduki ditzake aplikazioak, adibidez, arrain-haztegietan, itsasontzi-industrian, makinagintzan eta seinalegintzan.

«Gordailu bereziak, hoditeriak, balbulak, kutxa bereziak... Beti dago zerbait produktu komertzial gisara aurkitu ez, eta galdaragintza bidez ekoiztu daitekeena. Momentuz lan karga txikiarekin nabil, gustura, teknikak probatzen eta ikasten», adierazi du Iraultza Arkotxak. Galdaragintzako lanak bereziak dira, eta bakoitzari dagozkion teknika eta ezagutzez jabeatzea beharrezkoa da.

Aukera zabalak dauzkan ekimena dela dio Iraultza Arkotxak. «Momentu jakin batean sektore bat ahul egonez gero, beste sektoreetan aukerak egotea ona da».

Okamika industrialdean, Iraultza Arkotxak plastikoen galdaragintzan dihardu azken bi urte hauetan. Izan ere, altzairu galdaragintzan moduan, plastikoen galdaragintzan ere hainbat sektorentzat egin daiteke lan.

ROLDAN ARDOAK

[ARDANDEGIA - ISPASTER]

Erreserba handiko enpresa

Roldan ardoak Manu Roldanen aita zenak sortu zuen, 1951n, Lekeition. Anaia jubilatuta, gaur egun, Manu Roldan eta Lurdes Etxebarria senar-emazteen artean daramate enpresaren ardura.


13 urtetik Roldanen lanean, Manu Roldan kontsumo aldaketaren lekuko izan da. «Lehen, soltean ekartzen zuten, ontziratuta barik, zahagietan, upeletan eta txanbiletan, Riojatik. Gaur egun, leku askotatik dakarte, eta ontziratuta bakoia ez da saltzen», adierazi du. Ardoa estatu guztitik hartzen dute. Bestalde, Mantxatik baino ez da ekaritzen txanbiletako ardoa (ontziratuta ahal duten ardo bakarra).

Roldan Ardoak Ispasterko poligonoan dago 1990etik. Roldanek dioenez, ardo kontsumoa asko jaitsi da, nahiz eta urtaroen arabera aldatu izan. Uztailan eta abuztuan egiten dute beharra batez ere, Ea, Ispaster, Lekeitio, Ondarroa (azpibanatzaile batzuen bidez), Mendexa, Aulesti eta Markina-Xemeinen. Lekeitioko taberna eta jatetxean daukate eskaririk handiena, eta, jakina, udan, kanpoko jende asko etortzen delako.

Baserririk baserri banatzen jarraitzen dute, baina ez lehen beste, eta orokorrean ere krisia igartzen dutela diote, «jendeak ez duelako horrenbeste iriteten». Ardo arruntaren aukera behera doa: gaur egun, 150.000 litro ardo ontziratzen dira urtean; sasoi batean ontziratzen ziren 700.000etik 800.000 litroetatik urrun.

Hori bai, ardo arruntaren kontsumoa jaitsi den neurrian igo da ardo onduarena. Ardo ondua ontzirituta jasotzen dute, eta Roldan banatzeaz arduratzen da. Gehienbat, ostalaritzan dihardute; denda txikietan eta jatetxeetan zer edo zer lan egiten duten arren, bereziki tabernak dituzte bezero. Eta ez da ardo banatzen duten bakarra: esnea, ura, mostoa, garagardoa, freskagarriak,.... Denetarik.

Patenteetan sartuta daude. Otoio eta Roldan eta Antxiko ardoak patentatuta dituzte.



Manu Roldan

KOOPERATIBEN MAHAIA ELKARTEA:

Gizarte Ekonomiako enpresen sorrerarako ekimena

Azaro Fundazioak Gizarte Ekonomiako ereduaren sorrera bultzatzeko ahalegin berezia egiten du. 2003tik Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin elkarlanean dihardu, Lea-Artibai, eta inguruko eskualdeetan gizarte ekonomiako ereduak enpresak sortze aldera.

Kolaborazio marko honen baitan, 2003an Azaro Fundazioak *Kooperatiben Mahaia Elkarte*-aren sorrera bultzatu zuen, ondorengo kooperatiben partaidetzarekin: Burdinola, Cikautxo, Eika, Euskadiko Kuxta, Fagor Arrasate, Kide, Danobat-Lealde eta Maier. Mahai honek ekimen berriei ematen dien laguntza oso baliagarria da, kontraste eta iritzirako gune delako, eta sektore desberdinei buruzko informazioa eta aholkuek gain, inbertsiorako laguntza ekonomikoa eta mentoring zerbitzua ere eskaintzen dizkielako.

Ekimen honetan Azaro Fundazioak inguruko eskualdeetan enpresa berrien sustapenean lanean diharduten eragileen lankidetzara ere badu: Lanbide Ekimenak, Bermeoko Behargintza, Debegesa, Durangoko Behargintza eta Leartibai Garapen Agentzia. Ekimen honek Elkarlan, S.Koop-en orientabidea eta aholkularitza ere baditu.

Azken zortzi urteetan Azaro Fundazioak gizarte ekonomiako 18 enpresen sorreran parte hartu du, hauetatik 6 proiektu Kooperatiben Mahaia eskutik inbertsiorako laguntza ekonomikoa jaso dutelarik. Hamazortzi enpresa hauen artean, 116 lanpostu berri sortu dituzte.

■ CIKAUTXO: Berriatutik mundura

2011n Berriatutiko kooperatibak urrats garrantzitsuak eman ditu automobilen eta etxetresna elektrikoaren industrietan hornitzaile bezala kontsolidatzeko:

- Kautxuzko piezen produkzioari ekin dio Txinako planta berrian, non urte amaiera baino lehen 40 lagun inguru lanean egotea espero da.
- Indiako enpresa batekin Joint-Venture hitzarmena sinatuz, *Cikautxo Taurus Flexibles Pvt. Ltd.* planta berria sortu dute, gaur egunean 250 lagun inguru ari direlarik lanean bertan. Aurreko ezarpen biak beharrezkoak dira aipatutako industrien plataforma globalak garatzeko eskakizuna betetzeko, esparru geografiko guztiko bezeroengana heldu ahal izateko.

Oso gaitza da irautea merkatuek inposatutako arauak albo batera uzten badira, beraz, Lea-Artibaiko lanpostuen defentsarako eta berrien sorrerarako, ezin bestekoa da nazioartekotze prozesuetan parte hartzea. Sinismen horrekin, orain hamar urte baino gehiago Cikautxok lehen urratsak eman zituen onen alde, Txekian eta Eslobakian plantak irekiaz, eta Brasilgo Paranoarekin Joint-Venture hitzarmena sinatzeaz. Hortaz, gaur egun 8 ekoizpen ezarpen dauzka, denetara 2.800 langile daudelarik beharrean.

2012rako Lea-Artibain beste inbertsio berri bat egitea aurreikusten du, pabiloi berri bat eraikitzea Markina-Xemeingo Karia industrialdean, gune logistikoa bezala erabiliko dena hasieran. Hurrengo fase batean, beste ekimen berri batzuk ere kokatuko dira bertan, besteak beste, sektore biomedikorako osagaien ustiapena.



IRITZIA

Ainhoa
Arrizubieta
Zabala

[AZARO FUNDAZIOKO ENPRESA GUNEKO ARDURADUNA]

Barne-ekintzailtza: enpresak enpresa sortzaile

Orain dela laupabost urte ekintzaile hitza erabiltzen genuenean, enpresa berriak sortzen zituzten pertsona fisikoez aritzen ginen. Gaur egun, aldiz, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da enpresen barruko ekintzailtza, barne-ekintzailtza bezala izendatu den praktika. Hau da, enpresek, beraien ekimenez, enpresa edo jarduera berriak sortzea.

Epe luzean, barne-ekintzailtza enpresen lehiakortasuna indartu eta etorkizuna bermatzeko funtsezkoa dela konturatu dira, bai enpresak, bai entitate publikoak, eta lan ildo hori jorratzen ari dira buru belarri. Baina nola?

Alde batetik, enpresek barne-ekintzailtza euren etorkizuneko hazkundearen hazia dela onartu behar dute. Horretarako, beharrezkoa da kudeaketa ereduaren eragitea, uneoro aldatzen dagoen inguruan sortzen diren negozio aukerak identifikazioan eraginkorrako izateko. Aldi berean, enpresaren kultura aldatzea ere beharrezkoa da, eta barne-ekintzailtzaren alde jartzea. Eta, azkenik, enpresa barnetik sortu daitezkeen ekimenak babestea eta bultzatzea.

Bestalde, erakunde publikoen apustua ezinbestekoa da enpresetan barne-ekintzailtza bultzatzeko, beraien programetan honelako ekimenen laguntzeko bideak ezarri.

Barne-ekintzailtza bultzatzen duten enpresek badituzte hainbat antzerako ezaugarri, besteak beste, etengabe etorkizunera begira egotea, bidean aurkitzen diren aukerak aztertzea, gestio ereduak berrikuntzan oinarritzea eta pertsonak enpresaren aktiborik garrantzitsuen bezala hartzea.

Gure eskualdeko enpresen hazkundera berrabiltzeko aukera dugu barne ekintzailtzean.


enpresen lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen diren zerbitzuak ▶

- 1.- Compite-Enpresak: enpresen lehiakortasunean eragiten duten proiektuen garapena %50ean finantzatuta
- 2.- Finantza zaintza: enpresen finantza arloan hobekuntzak egiteko %75eko laguntza
- 3.- Berrikuntza eta dibertsifikazio proiektuen garapena
- 4.- Diru laguntzen gestioa
- 5.- Elkarguneak: enpresen interesen arabera antolatutako mahai-inguruak

Jarduera EKINTZAILEAREN diagnostikoa

Hurrengoak dira *Global Entrepreneurship Monitor (GEM)* 2010ko azterlanaren 2010ko EAerako ondorioak. EAEko **jarduera ekintzailearen tasa TEA(*)** 2010ean azken zazpi urteetako izandakoaren erdira jaitsi da, %2'5ra. Zehazki, enpresa jaio berrien tasa (0-3 hilabetekoak) %0,7 izan da, eta enpresa berrien tasa (3-42 hilabetekoak) %1,8.

GRAFIKO 1-ean ikus daiteke azken zazpi urteetan enpresa sorrerak izan duen bilakaera.



Grafikoa 1 : Azken 7 urteetako TEA.
Iturria: GEM ikerketa.

Zehazki, sortutako enpresa berriak (3 - 42 hilabetekoak) aurreko urtekoak baino pixka bat gehiago izan dira, baina enpresa jaio berriak (0 - 3 hilabetekoak), berriro ere gutxitu egin dira.

Nazioartekoarekin eta estatukoarekin alderatuz gero, EAEko jarduera ekintzaile atzera gelditu da rankingean. Adierazlerik onena enpresa sendotuena da (42 hilabete baino zaharragoak). Horrelako enpresen jabetza EAEko biztanleria helduaren %6'8 da. Itxaropentsua da enpresak ixtearen tasa EAEn txikia izaten jarraitzen duela.


Ekintzaileen profila:

Gizonezkoa (%55a)
35 eta 45 urte artekoa
Heziketa maila handikoa

Emakume ekintzaileen batzuek besteko adina txikiagoa da (36'6 urte) gizonezkoena baino (40'1 urte).

Lanean independentzia handiagoa lortzetik aparte, hurrengoak dira ekiteko arrozoi nagusienak:

- Aukera bat identifikatu izatea, kasuen %80an.
- Lan postu bat lortzeko, kasuen %14,6an.



GRAFIKO 2:
Jarduera berriek sorreran duten enplegu tamaina
Iturria: GEM ikerlana

Sortutako negozioen ezaugarriak:


Enpresa berrien sustatzaileen batez besteko kopurua 1'6 bazkidetakoa izan zen 2010an. Batzuek beste bakoitzak 1'5 lanpostuko lan taldeak sortu zituen, eta 5 urtera begira, 2'8 langile izatera iristea espero dute. Ikusi **GRAFIKO 2**.

2010ean proiektu ekintzaile berrien %81'4 zerbitzu sektorekoak izan ziren, bereziki kontsumora bideratutako arlokoak: %16,9.

Azken 3 urteetako datuen arabera, enpresa proiektuak ia erdira murriztu dira: 2007an %30'7a izatetik, 2010ean %16'7 izatera jaitsi dira. Aldiz, enpresei zerbitzuak eskaintzera zuzendutakoak nabarmen gehitu dira: %16'5a izatetik %35'9a izatera.

*** TEA**

Total Entrepreneurial Activity: negozio berrien kopurua, 18 eta 64 arteko biztanleria helduarekin alderatuta. Tasa hau kalkulatzeko orduan sortutako enpresak bi multzotan banatzen dira: enpresa jaio berriak, 0-3 hilabetekoak, eta enpresa berriak, 3-42 hilabeteko biziraupena dutenak.



GRAFIKO 3:
Sektore desberdinetan sortutako enpresa moten azken urteko bilakaera
Iturria: GEM ikerlana

tera iritsi dira. Horrek beste eragin bat ere badauka: zerbitzuetako enpresek lanpostu gutxiago sortzen dituztenez, sortutako enpresen tamaina txikitu egin da.

Ikusi **GRAFIKO 3**.

Berrikuntza maila:

GEM azterketaren arabera, ekimenen %8'7ak bezero guztientzat produktu edo zerbitzu guztiz berriak eskaintzen zituen, %8,5ek ez zuen helburuko merkatuan lehiakiderik ikusten, eta %11'4ek urtebete baino antzinatasun txikiagoko teknologia erabiltzen zituen negozioa garatzeko. Esan behar **teknologia berrien erabilera azken urteetan goranzko joera hartu duela**, ekimen berrien kasuan baita.

Esportaziorako jarduera:

Ekimen berri guztien %21'4ak esportazio-ko jardueraren bat izan du 2010an: baka-

rrik negozioen %7'7ak zuzendu dute euren salmenten laurdena edo gehiago atzerrira.

Finantzaketa iturriak:

Finantziazio informala izan da nagusia, %53'2a, hau da, inbertsiogileengandik eta ekintzailearen familiarengandik etorrirakoa. Hala ere, ekintzaileekin inongo sendetasun edo adiskidetasun harremanik ez duen inbertsiogile informalek kopuruak gorantzako joera dauka, %14'2.

Ekintzaileek baloratutako faktoreak:


- Azpiegitura fisikoak egotea da faktorerik baloratuena (3'9 puntu 5en gainean).
- Lehen eta bigarren hezkuntzen maila izan da balorazio txikiago jaso duena (1'9 puntu 5en gainean), baita ere finantza laguntzak (2'4 puntu 5en gainean). Hain zuzen ere, ekintzailetza bultzatzeko ekin-

tzailetza espiritua hedatzea gazte-gaztetatik klabea da. Datuek argi adierazten dute oztoporik nagusienetarikoa bat hezkuntza sisteman aurki dezakegula, gazteei ez baitzaie ekintzaile izaten erakusten.

Are gehiago, urteetan zehar ez da irakatsi ez ikastetxeetan ez gizartean **arriskuak** hartzen, ezta **porrota** onartzen ere, ezinbesteko faktoreak ekintzailetasunerako. Herrialde ekintzaileenetan, Australia, Islandia eta Estatu Batuetan, adibidez, hasierako mailetatik hasita, porrota ikasketzarekin lotutako prozesu bat bezala ikusten dute, eta horregatik, gizarte haiek arriskuak hartzeko gaitasun handiagoa daukate. Errespetu eta errekonozimendu osoa merezi dute ekintzaileek, oso gutxi baitira euren ondasunak arriskuan jartzeko gai diren pertsonak, proiektu berriak aurrera eramateko konpromisoa dela eta.

lea-artibaiko datu sozio-ekonomikoak


Azken 12 hilabeteetako Lea-Artibaiko langabezi tasaren bilakaera.




Azken urteetako establezimenduen kopurua.

	2006	2007	2008	2009	2010	2006-2010 aldea
EAE	186.306	199.310	203.911	201.952	191.057	2,55%
Bizkaia	95.871	101.900	104.838	104.510	99.086	3,35%
Lea-Artibai	1.843	1.969	2.020	2.010	1.925	4,45%

Biztanleriaren sakabanaketa herriak 2010.



Biztanleriaren piramidea 2010.



LEIHATILA

Ideia eta enpresa proiektu LEHIAKETA

- Ideia lehiaketa: enpresa sortu berrientzat edo sortzeaz daudentzat. 3.000 euroko saria eta erakunde antolatzaileen laguntza teknikoa.
- Enpresa industrial eta hauei zerbitzuak ematen dizkieten enpresek lehiakortasuna hobetzeko proiektuen lehiaketa. Proiekturik onenari saria 5.000 euro eta laguntza teknikoa.
- Merkataritza, zerbitzu eta turismo enpresek lehiakortasuna hobetzeko proiektuen lehiaketa. Saria: 3.000 euro, eta proiektua garatzeko laguntza teknikoa.

Eremu guztietarako proiektuak aurkezteko azken eguna 2012ko martxoaren 30a izango da.

Izena emateko eta informazio gehiagotarako:
leartibai@leartibai.com
azaro@leartik.com
94 616 90 88 / 94 616 91 72



EPEA ZABALIK DAUKATEN DIRU LAGUNTZAK ▶

Lehiakortasuna hobetzeko

JABETZA INDUSTRIALA BABESTEIA

Patente eta erabilgarritasun ereduaren eskabideak egiteko laguntzak.

Besteak

PRAKTIKETAKO KONTRATUAK EGITEKO LAGUNTZAK

Praktiketan kontratatu den pertsonaren soldatan laguntza.

ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZA

Inbertsionerentzat eta lehenengo urteko gastuetarako laguntzak.

Informazio gehiagorako edo eta eskaria egiten laguntzeko DEITU:

94 6169172
94 6169088

Leartibai
Garapen Agentzia

www.leartibai.com
leartibai@leartibai.com

azaro
fundazioa

www.azarofundazioa.com
azaro@leartik.com